

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

EUSKADIKO AUTONOMIA-ERKIDEGOKO 2013RAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

AURKIBIDEA:

0. SARRERA
1. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA
2. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA
3. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA
4. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA
5. GIZARTERATZEKO GASTU PUBLIKOA
6. LANGILEGOA
7. ONDORIOAK
8. PROPOSAMENA: DIRU-SARRERA HANDIAGOAK, GASTU HANDIAGOAK

0. SARRERA

Dokumentu honetan Eusko Jaurlaritzak (EJ) 2013 ekitaldirako aurreikusi duen gastua aztertuko dugu, baita 2009ko ekitalditik aurrera izan duen bilakaera ere (horren ondoren hasi zirenaldi honetako murrizketak). Gastu desberdinek zein bilakaera izan duten analizatzeko honakoa erabiliko dugu: Euskadiko Autonomia Erkidegoko 2013rako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 2012ko Aurrekontuaren exekuzio mailari buruzko Aurreikuspena, eta 2009-2011 ekitaldietako gastu-aurrekontuaren likidazioa.

Aurrekontu-proiektuaren aurkezpena eta eztabaida murrizketa orokorren testuinguruan dator. Esaten digutenez, ez omendago beste aukerarik, eta gauza bakarra eztabaida daitekeela, zein partidatik ken daitekeen dirua, beste batzutaraz bideratzeko. ELAn badakigu hori ez dela egia, alternatibak badaudela, eta dena hautu politikoen baitan dagoela.

Txosten honen asmoa Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-murrizketen errealitatea analizatzea da, eta benetan alternatibarik badagoela ikusaraztea, behar den bakarra borondatea politikoa dela alegia.

1. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzak 2013ko ekitaldirako **8.966 milioi euroko** aurrekontua egin du (Abiadura Handiko Trena eraikitzeke aurreratzen duen 350,7 milioiko zenbatekoa kenduta; hau aurrerago Espainiako gobernuak itzuliko dio), hots, **2012rekiko %8,9ko jaitsiera eta 2009rekiko %9,6koa.**

EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPG). 2009-2013 (*)

2009	2010	2011	2012	2013
10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.879,1	8.966,0
%16,0	%15,6	%15,0	%14,9	%13,5

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eustat


() 50 milioi € deskontatu dira 2009an, 167 milioi, 2010ean, 218,3 milioi, 2011n, 347,7 milioi 2012an eta 350,7 milioi 2013an, izan ere, kopuru hauek EJK AHT eraikitzeke aurreratzen baititu, baina gero Madrilgo Gobernuak itzultzen dizkio Kupo bidez.*

Zenbateko hauei 2011tik hona kendu egin beharko litzaieke, gainera, EJK urtero politika aktiboaren transferentzia medio jasotzen duen diru kopurua, baina honi buruzko daturik ez daukagu (2011ko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoa 2011n BPGaren %0,7 eta 2012an %0,9 izan zen).

EJK gastu publikoan egiten duen ahalegina 2009tik hona zeharo jausi da, baita BPGaren edo ekonomiaren bilakaera aintzat hartuta ere: izan ere, BPGa zenbateko nominaletan %4 hazi da 2009ko ekitalditik aurrera (2009ko 63.989 milioi eurotik 2013an aurreikusitako 66.543 milioietara), eta EJren gastua, berriz, %9,6 murriztu da. Beraz, **faltsua da murrizketak krisiagatik**, egoera ekonomikoa edo BPGaren bilakaera medio **egiten direnik.**

Era honetara, EAEn sortutako 100 eurotik Eusko Jaurlaritzak 13,5 soilik gastu publikora bideratzeko asmoa duela, 2009an baino BPGko 2,5 puntu gutxiago. EJK **2009ko ahalegin bera egingo balu, 2013an aurrekontukoak baino 1.348 milioi euro gehiago gastatu beharko lituzke.**

EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA (BPG).
2009-2013



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

EJK iragarri arren bere lehentasuna **oinarrizko zerbitzuak** mantentzea izango dela (esaterako, osasungintza, hezkuntza edota behar handiena dutenen babesa), hauetan guztietan **murrizketak egingo dituzte**, ondorengo ataletan azalduko denez.

2. OSASUNEO GASTU PUBLIKOA

2013ko ekitaldirako osasungintzan aurrekontuan jaso den gastua 3.263,2 milioi euro da, 2012an baino %3 gutxiago eta 2009an baino %7 gutxiago.

2013an osasungintzako gastu publikoaren pisua BPGarekiko %4,9 litzateke, hots, 2012 urtearekiko 0,2 puntu gutxiago eta 2009ren aldean 0,6 puntu gutxiago. EJK osasungintzako gastu publikora 2009ko BPGko portzentaje bera bideratuko balu, 2013ko aurrekontu-proiektuan erabakitako kopurua baino 368 milioi euro gehiago jarri beharko litzuke.

EUSKO JAURLARITZAREN OSASUNGINTZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPG).
2009-2013

2009	2010	2011	2012	2013
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.263,2
%5,5	%5,4	%5,2	%5,1	%4,9

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Nazioarteko alderaketak ere ondorio interesgarriak erakusten dizkigu, 2010 ekitaldian, ELGEk batezbeste BPGaren %6,7a zuzendu zuela osasunean gastu publikora erakusten baitu, EAEk baino BPGaren 1,3 puntu gehiago, eta honek, 820,7 milioi eurotako defizita suposatzen du. Hau da, ELGEn adinako batezbesteko esfortzua egingo balitz EAEn, osasunean gastu publikoa dena baino %23 altuagoa izan beharko litzake.

3. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

2013ko aurrekontu-proiektuan 2.413,8 milioi euro aurreikusi dira hezkuntzako gastu publikora bideratzeko, 2012an baino %7,9 gutxiago eta 2009an baino %14,5 gutxiago.

Hezkuntzara gastu publikoan bideratutako BPGaren portzentajea %3,6 litzateke, 2012an baino BPGko 0,4 puntu gutxiago eta 2009an baino 0,8 puntu gutxiago. Egindako ahalegina 2009ko berbera balitz, aurrekontu-proiektuak 509 milioi euro gehiago jaso beharko luke.

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZARAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPG).
2009-2013

2009	2010	2011	2012	2013
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.619,6	2.413,8
%4,4	%4,3	%4,1	%4,0	%3,6

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat


Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, murrizketak

orokorrak dira hezkuntzako tarte nagusietan:

- **Bigarren Hezkuntza eta LH**rako 887,5 milioi euro jaso dira aurrekontuan, 2012an baino %2,7 gutxiago eta 2009an baino %10,8 gutxiago.
- **Haur eta Lehen Hezkuntzara** aurrekontuan 871,9 milioi euro bideratuko dira, 2012an baino %11,2 gutxiago eta 2009an baino %20,8 gutxiago.
- **Unibertsitate-hezkuntzarako** aurrekontu-proiektuan 301,8 milioi aurrekusi dira, 2012an baino %13 gutxiago eta 2009an baino %18,1 gutxiago.

2012 urtearekiko murrizketarik handiena unibertsitate-hezkuntzak jasango du, eta 2009arekiko, berriz, haur eta lehen hezkuntzak (adin-tarte honetako neska-mutilentzako estaldura ez dago inondik ere bermatuta).

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA HEZKUNTZA-TARTEEN ARABERA (BPG).
2009-2013



ELGEk batezbeste BPGaren %5,4a zuzendu zuen hezkuntzan gastu publikora 2009 ekitaldian, EAEren %4,4aren aldean, eta honek, 631,3 milioi eurotako defizita adierazten du. Era honetara, EAEk ELGEren batezbesteko esfortzua egingo balu hezkuntza publikoan, batezbeste urtean %18a gehiago gastatu beharko luke.

4. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

2013rako etxebizitzara bideratuko den gastua 92 milioi euro da, 2012an baino %36 gutxiago eta 2009an baino %57,7 gutxiao. Honek esan nahi du atal honetako gastu publikoa 2009an egin zenaren erditik behera egongo dela aurten.

Izan ere, EJK 2013an BPGaren %0,1 baino ez baitu bideratuko etxebizitzara, 2012ko %0,2aren eta 2009ko %0,3aren aldean. Gaur 2009ko portzentaje bera erabaki balu, aurrekontuan jasotakoak baino 133 milioi euro gehiago gastatu beharko lituzke.

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPG)
2009-2013

2009	2010	2011	2012	2013
217,4	182,6	123,0	143,8	92,0
%0,3	%0,3	%0,2	%0,2	%0,1

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Etxebizitza kontuan egingo diren murrizketak are larriagoak dira aintzat hartuz gero hainbat errealitate: 100.000 pertsona daude independizatu nahi eta ezinean, baliabide ekonomikorik ez dutelako; etxebizitza eskuratzeko zailtasunak gero eta handiagoak dira, eta etxekaleratzeak arazo larri bihurtu dira.

5. GIZARTERATZEKO GASTU PUBLIKOA

2013ko ekitaldirako aurrekontuetan jaso den gizarteratzeko gastua 350,3 milioi euro dira, eta honela banatu dituzte:

- 322 milioi, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentarako eta Etxebizitzako Prestazio Osagarriak.
- 17,3 milioi, Larrialdi Sozialerako Laguntzetarako.
- Gainerako 11 milioiak LANBIDEn gastu arrunterako lirateke.

EJK aurkakoa esanagatik, aurrekontuan gizarteratzeko jaso den gastua 2012 urtearekiko %18,9 murriztuko dute, eta %16,9 2010 urtearekiko (urte horretan aurkeztu zen gastu hau gaurko tankeran; lehenago ez zegoen Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak). 2010eko portzentajeari eutsiz gero, aurten EJK 79 milioi euro gehiago jarri beharko luke aurrekontu-proiektuan.

EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTERATZEKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPG). 2010-2013

2010	2011	2012	2013
421,7	410,3	432,1	350,3
%0,6	%0,6	%0,7	%0,5

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Zehazki:

- Eusko Jaurlaritzak **Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren** zenbatekoa %7 murriztuko du (baita famili- eta lan-bizitza kontziliatzeko prestazioak ere), Lopezen gobernuak 2012ko Aurrekontu-Proiektuan egin zuen bezalaxe.
- Larrialdi Sozialerako Laguntzetara

bideratutako zenbatekoa mantendu egingo dute; haatik, partida hau beharizan guztiak asetu baino lehenago agortzen da, eta gainera pobrezia areagotu egin da.

- Bestalde, **Etxebizitzako Prestazio Osagarria** hileko 250 euro izango da, eta ezin izango da gehitu, inongo kasutan.

Murrizketa hauek eragingo dute pobrezia-tasa, berez handia, are gehiago haziko dela.

6. LANGILEGOA

Aurrekontu-Proiektuak dio "urteko ordainsari osoak ezin izango du inongo igoerarik izan 2012ko ekitaldirako ezarritakoen aldean".

Gainera, EJK bere langileen lanaldia luzatu du (ordain ekonomikorik gabe), eta honek lanpostuak suntsituko direla esan nahi du.

Aurrekontu-Proiektuak dioenez, Gobernu-Kontseiluak onetsiko ditu "lan-baldintzei buruzko akordioak, hitzarmen kolektiboak, soldata-berrikuspenak edota dagoeneko badauden beste hitzarmenei atxikitzeko zein zabaltzeko aukera"; honek negoziazio kolektiboa garatzeko aukera oro galarazten du.

7. ONDORIOAK

7.1. 2013ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuaren ezaugarri nagusia, zalantzarik gabe, **murrizketa** da. Jaurlaritzaren gastu guztiari inoiz ezagutu gabeko murrizketa ezarriko zaio, eta kontrakoa saldu nahi badute ere, partida guztietan sartu dute guraiza, baita sozialetan ere (osasungintza, hezkuntza, etxebizitza, gizarteratzea...).

7.2. **Zerbitzu eta prestazio publikoak mantendu**

egingo direla dioen argudioa aurrekontua ikusita **indargabetuta geratzen da.**

- Langabezi tasa igo egingo da. Enplegu publikoa murriztu egingo da. Gainera, murrizketak enplegu azpikontratatuari eta arlo pribatuari ere eragingo dio. Ondorioz, **langabezia-tasa (%16,3) are gehiago haziko da**, eta horrenbestez, baita dagoeneko oso puztuta dagoen pobrezia-tasa ere (biztanleriaren %7,3 pobrezia arriskuan dago).
- Gizarte-prestazioen jaitsierak emaitza bakarra ekar dezake: **pobrezia-tasaren igoera.**
- Zerbitzu publikoen kalitatea eta estaldura okertu egingo dira, eta ondorioz herritarrek arlo publikoaren gabeziak beren gain hartu beharrean izango dira; erosteko ahalmena oro har gutxitu egingo da.

7.3. EJK murrizteko politika zuritzeko aipatzen duen **argudioa** da ez dagoela beste aukerarik, **krisiaren ondorioz diru-sarrerak gutxitu egin direlako.** Alabaina,

- **Diru-sarrerak ez dira krisiaren poderioz gutxitu:** BPGa 2007 eta 2012 urteen artean %0,3 jaitsi den bitartean, diru-sarrerak %17,2 gutxitu dira. Hots, krisia hasi zenetik BPGa ia bere horretan mantendu da, baina diru-sarrerak amildu egin dira.
- **Diru-sarrerak jaitea ezarritako zerga-politiken ondorio da:** elusio fiskalarekiko utzikeria, BEZean eta Sozietateen Zergan onartutako iruzur fiskala, errenta altuei eta kapital-errentei emandako pribilegiozko tratua... Euskal erakundeek erabakia hartu dute: euren erredua diru-

sarrera eta gastu publiko apaletan oinarritzen da.


- Ondorioz, **gastuan egindako murrizketak ere hautu baten emaitza dira**, Eusko Jaurlaritzak hori erabaki du alegia.

7.4. Diru-sarrerak jaustea nahita bilatzeaz gainera, aurrekontu-proiektuak aurreikusten du Foru-Aldundiek 2013an gastu fiskala medio 5.374 milioi euro ez dituztela bilduko; beraz, ogasunen **diru-sarrerak** (11.580 milioi daude aurreikusita) **izango direnak baino %46 altuagoak izan zitezkeen.**

7.5. Diru-sarrerak eroriko egingo dira, eta gainera EJK bere gastu-ahalmena mugatu egingo du berriro, **erabakia** hartu baitu (bere eskumenei uko eginez) Madrilgo Gobernuak 2013ko ekitaldirako ezarritako gehienezko BPGaren %0,7ko **defizit helburua bete egingo duela**; ondorioz, EJren gastuak aurreikusitako diru-sarrerak gehienez 470 milioitan gaindi ditzake.

7.6. **Jaurlaritzaren zor publikoa gehitu ez balitz, gastu publikoaren jaitsiera askoz handiagoa izango litzateke.** Izan ere, 2007ko ekitalditik hona gertatutakoa aztertuz gero, egungo krisi aldia hasi baino lehenago, ikus dezakegu gastu publikoa mantendu egiten dela, diru-sarrerak gutxitu arren; hau posible da zor publikoa hazi egin delako (2007ko BPGaren %0,5etik 2013ko %10,2ra gehitu da, hots, 22 bider hazi da).

EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-SARRERAK,
GASTUA ETA ZOR PUBLIKOA (%/BPG). 2007-2013



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Zehazki, Jaurlaritzaren **aurreikusitako zorpetzea** 2013rako 6.761,4 milioi euro izango da, 2013ko 6.088,5 milioiko zorpetzeari honakoa gehitu behar baitaio:

- Eusko Jaurlaritzak 2013ko ekitaldian zor publikoko 872 milioi euroko **jaulkipen** bat egiteko asmoa du.
- 2013ko ekitaldian aurreikusitako zor publikoari dagokion gastua 432,98 milioi euro da (199,93, zorra **amortizatzen**, eta 233,05, **interesak** ordaintzeko).

ZOR PUBLIKORAKO AURREIKUSITAKO GASTUA.
EUSKO JAURLARITZA VASCO, 2013

AMORTIZAZIOA	INTERESAK	GASTUA
199,93	233,05	432,98

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Zor publikoari dagozkion kopuruek duten pisuaren ideia egiteko, ez dago honokoak gogoratzerik baino: zor publikoa ordaintzera zuzenduriko zenbatekoa (432,9 milioi) gizarteratze (350,3 milioi) edo unibertsitate irakaskuntzara (301,8 milioi) zuzendurikoa baino askoz gehiago da, adibidez, eta zorraren interesak ordaintzera zuzenduriko zenbatekoa bakarrik (233,05 milioi) etxebizitzan gastu osoa baino 2,5 aldiz handiagoa da.

7.7 Soldatapeko ez direnen errenten mesedetan egin den zerga-politikak diru-sarrera publikoak gutxitzea ekarri du eta, ondorioz, zor publikoa asko haztea.

Beraz, zor publikoa (zeina azkenean euskal gizarte guztiak ordainduko baitu) elite ekonomiko txiki baten onerako egin den zerga-politikari esker hazi da; esan daiteke **Jaurlaritzaren egungo zorpetze maila** (2013rako 6.761 milioi euro aurreikusten dira) **zati handi batean zor ilegítimoa litzateke.**

8. PROPOSAMENA: DIRU-SARRERA HANDIAGOAK, GASTU HANDIAGOAK

Alternatibarik badago, eta bere funtsa diru-sarrerak gehitzea litzateke. Zerga eta kotizazio sozialei dagokienez Europar Batasuneko batez besteko BPG portzentaje bera aplikatuz gero, EAEn urtean 4.400 milioi euro gehiago bilduko lirateke, eta horrek EJren gastua %50 gehitzeko aukera emango luke. European posible bada, hemen ere bai.